

GAIA: HERRITARREK PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDI PUBLIKOA ONESTEA 2026. URTERAKO.

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak, Udaleko herritarren partaidetzaren bultzatzaile den aldetik, deialdi hau landu du, Gasteizko udalerrian partaidetzaren kultura zabaltzea helburutzat harturik.

Deialdi honen helburua da partaidetzaren kultura sustatzea, eta herritarrei irekitako prozesu partizipatiboen bidez egiten diren proiektuen gastuak ordaintzen laguntzea, proiektu horien helburuak bat badatoz Udalaren ildo estrategikoekin.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko apirilaren 21ean onetsi zituen Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak Ordenantza horren xedea da Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea, eta indarrean sartu zen 2023ko urriaren 1ean.

Hauxe dio ordenantzaren 6. artikulua: “Gasteizko Udalak, dirulaguntzak ezarri aurretik, plan estrategiko batean zehaztuko ditu lortu nahi dituen helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuak betetzearen mende”.

Dirulaguntza hau jasota dago Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen egungo Plan Estrategikoan (Tokiko Gobernu Batzarrak 2025-2027 aldirako onartu zuen plan hori 2025eko urtarrilaren 17an).

Aurrekoa ikusita, eta kontuan hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, lege horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorraren 8. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 127.1.g) artikuluan ezarritakoa, Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzi ordezkariak —Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeari buruz 2023ko ekainaren 22an hartutako erabakiari jarraiki—, proposamen hau egin dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehen a. Aurretiaz onestea herritarrek parte hartzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia 2026. urterako, 24.000,00 euroko aurrekontuarekin, bai eta haren oinarri arautzaileak ere.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MIREN FERNANDEZ DE LANDA RUIZ (Concejala Delegada de Gobierno Abierto y Centros Cívicos)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	MEKNZJOKGQRB13EJCZTYRTPZNU	Data eta Ordua Fecha y Hora	30/12/2025 20:17:59
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	1/2


MEKNZJOKGQRB13EJCZTYRTPZNU



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Bigarrena.- Aurreikusitako gehieneko gastua (24.000,00 eurokoa baita), 2025eko ekitaldirako aurrekontu-proiektuko 1822 22 9242 48014 partidan kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean dago.

Hirugarrena.- Oinarriak ALHAOn eta Udalaren webgunean argitaratzea, eta deialdiaren laburpena Dirulaguntzen Datu-base Ofizialera bidaltzea.

Onespen egintza honen edo oinarrien kontra ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez daiteke, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, BI HILABETEKO epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik, AUKERAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organo beraren aurrean, HILABETEKO epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik. Kasu horretan, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi-errekurtsorik berraztertzeko errekurtsioa espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpena espresua bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da haren kontra BI HILABETEKO epean, argitaratzen den egunetik aurrera; espresua ez bada, edozein unetan aurkeztu ahalko da errekurtsioa, dagokion arauarekin bat administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Hala ere, zeuok erabakiko duzue egoki deritzozuena.

Vitoria-Gasteizen, 2025ko abenduaren 15ean.

Miren Fernández de Landa Ruiz

Zinegotzi ordezkaria

Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saila

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MIREN FERNANDEZ DE LANDA RUIZ (Concejala Delegada de Gobierno Abierto y Centros Cívicos)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	MEKNZJOKGQRB3EJCZTYRTPZNU	Data eta Ordua Fecha y Hora	30/12/2025 20:17:59
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	2/2



MEKNZJOKGQRB3EJCZTYRTPZNU